

OSTEGUNA

2016/06/16
 4. urtea, 513. zenbakia
 107.6 fm · 105.0 fm
www.ataria.info

**Aitortza egin
 die, Aritzak,
 50 urteotan
 tortura jasan
 dutenei**

‘Hotzikararen Kronika:
 Tortura Amasa-Villabonan
 1960-2011’ lana aurkeztu
 du, kultur elkarteak // **2**

**Ibarrako Gazte
 Festetako
 egunetan,
 ‘Ezer ez da berdin’**

Bihartik hasi eta igandera
 bitarteko egitarau osatua
 antolatu dute gazteek // **6**



«Hauspoa, teknika eta indarra behar ditu segalari on batek»

ARKAITZ ARTEAGA SEGALARIA

Gipuzkoako Sega Txapelketa hasiko da igandean, eta bost urte geldirik egon eta gero, Arkaitz Arteaga 2008ko Euskal Herriko txapelduna txapelketetara itzuliko da // **4-5**



ORIA  BEILATOKIA
 TANATORIO

Usabal Ind., 12 · 20400 Tolosa
 943 69 75 79

www.funerariaoria.com

**Unipapeleko
 langileek
 greba utzi dute
 negoziatzeko
 jarraitzeko**

Negoiazio aukeraz hitz
 egiteko enpresako jabeekin
 Burgosen, astelehenean
 egingo dute bilera; hilaren
 24an amaitzen zaie
 kontsulta epea // **3**

Aritza Kultur Elkartek *Hotzikararen Kronika: Tortura Amasa-Villabonan 1960-2011* lana aurkeztu zuen asteartean eta aitortza egin zien 50 urteotan herrian tortura jasan dutenei

Korapiloa askatzen hasteko

Jon Miranda Amasa-Villabona

Kolpeak, poltsa, biluzteak, mehatxuak, irainak, atsedena eza, lo falta, oihiak... Tortura praktiken aipamen zehatzik ia ez zen egin asteartean, Aritza Kultur Elkartek argitaratutako liburuaren aurkezpenean. Kontatzen ez dena, bada, ordea. Subijana etxera gertutatuko aurpegieran nabaritzen, tortura Amasa-Villabonan errealitate gordina izan dela, orain arte ahoz gora inoiz kontatu ez den arren.

«Horregatik, gaiak duen gogortasunagatik, bereziki eskertu nahi ditugu euren testigantza eman diguten herritarrek», aipatu zuen ekitaldiaren hasieran Esti Amenabarrok, kultur elkarteko kideak. Aurretik Espainiako gerraren inguruan egindako ikerketa osatzera dator lana eta 1960tik 2011ra arrazoi politikoengatik emandako 144 atxiloteta aztertu ditu Aritzak. Horieta, funtzionario publikoek, erai-kin publiko batean eragindako

88 tortura kasu frogatu ahal izan dituzte.

Zerrenda horretan azkena da Lander Etxeberria billabonatarra: «6.000 biztanletara iristen ez den herri batean 88 kasu dokumentatu ahal izan badira, proportzioan, Euskal Herrian, 45 mila kasuz ariko ginateke hizketan». Paco Etxeberriak zuzentzen duen aditu taldea ari da torturaren inguruko egitasmoa gauzatzen Eusko Jaurlaritzaren enkarguz. Oraingoan, 5.000 kasu zerrendatu dituzte eta «beraz, oraindik ere asko dago ikertzeko», Lander Etxeberriaren iritzian. Aritza Kultur Elkartek lan hau burutzeko jaso duen laguntza eskertu du: «Euskal Memoria fundazioaren lana dago oinarrian eta Paco Etxeberria eta bere lan taldeak aholku baliagarriak eman dizkigu», aipatu du Amenabarrok.

Amasa-Villabonan tortura jasan duten herritarrek aurkeztu dituzten salaketa bakar batek ere ez du aurrera egin epaitegietan, «nahiz eta kasu larriak egon diren tartean». Salaketek egin duten bide judizial laburraren in-



Krabelinak eta liburuaren ale bana jaso zuten torturatuek asteartean. ATARIA

guruan hitz egin du aurkezpen ekitaldian, TATEko abokatu Lorea Bilbao: «Epaitegien jarrera beti ezeztatzearena izan da. Inkomunikazioaldiak ahalbidetzen du tortura. Gero frogarik egon ez dadin, bost egun izaten dituzte nahi dutena egiteko, inolako lekukotzarik gabe. Gainera, auzitegiko medikuak tortura zantzuak desagerrarazten saiatzen dira». Hala ere, babes eske jo izan dute TATetik Europako Giza Eskubideen Auzitegira eta zenbait kasutan Espainiako estatua zigortu du auzitegi horrek tortura salaketak ez dituelako ikertzen. «Sinesgarriak direla eta zantzuak badaudela dio Estrasburgok. Besteak beste, inkomunikazioaldiarekin bukatzeko gomendioa luzatzen du epaietan».

KOBERTURA ZABALA


Inkomunikazioa, politikoez ezaurretako neurria dela dio Bilbao, «eta beraz, auzitegietan salaketek aurrera egin ez dezaten babes politiko eta mediatikoa behar du torturak». Bat dator, Lander Etxeberria: «Gorputz polizial oso bat egon da nahastuta kontu honetan eta inpunitate osoz jardun dute botereko estamentu guztiek». Duela urte batzuk Olarra anaiek egindako tortura salaketaren epaiketa ekarri du gogora billabonatarrek: «Guardia Zibilei babesa ematera joandakoak

gehiago ziren, Olarratarrei babesa ematera joandakoak baino».

Astearteko ekitaldian, zorionez, alderantzizkoa gertatu zen. Jendearen berotasuna jaso zuten Amasa-Villabonan tortura jasan duten herritarrek eta Aritza Kultur Elkartearen aitortza, egindako lanaren ale bana eta krabelina jasota. Ekitaldian parte hartu zuen Mikel Egibarrek nabarmendu zuenez, «egin diguten zauri hori itxi eta geratu zaigun orbaina aktibo politikoan bihurtzea dagokigu torturatuoi».

«Amesgaizto bat izan da eta herri honek ez du horren beharrik. Ametsak behar ditugu eta torturaz hitz egitea baino gehiago komeni zaigu askatasunaz eta erabakiaz hitz egitea. Horrek elkartuko gaitu». Aurrera begirako mezu horrekin bukatu zuen ekitaldia Etxeberriak.

Sistematikoa izan da torturaren erabilera Espainiako estatuan gonbidatu guztien ustez. «Oreka hori lortu dute. Torturaren errealitatea ezkutatu dute, baina ez guztiz. Euskal Herrian denok izan dugu torturaren berri, ezarritako botereari aurre eginez gero, bagenekien zer zertokigun gainera» dio Etxeberriak. Korapiloa askatzen hasi da eta orain arte kontatu ez dena, dagoeneko, errealagoa da, Aritza Kultur Elkartek egindako lanari esker.



«Giza eskubideen aldeko nire militantzia aldarrikatzen dut»

MIKEL EGIBAR TORTURATUA

Astearteko aurkezpenean parte hartu zuen Mikel Egibar zizurkildarrak. Aurreko astean, TATEko kideekin batera Suitzan izan zen tortura testigantza ematen.

Maiz tokatzen zaizu egin zizuten minaz hitz egitea?

Ez da erraza izaten horrelako uneak gogoratzea. Beste edozein traumarekin gertatzen den bezala, hasierako zauriak orbain bilakatzen dira gerora. Egin zidatena borrokatzeko indarrean bilakatu dut eta gaur egun giza eskubideen aldeko nire militantzia aldarrikatzen dut.

Aurreko astean Nekane Txapartegi bisitatu zenuen Zuri- cheko kartzelan.

Bizitzak horrelako bueltak ematen ditu. Berriz elkar ikusi genuen bederatzi urte pasa eta gero. Zalantzarik gabe, Nekane emakume indartsua da eta egoerari aurre egiteko sobera kemen du. Baina azpimarratu nahi dut, oso egoera zail eta larrian dagoela Suitzan. Momentu honetan 23 ordu ziegan ematen ditu, alabarekin egoteko aukera gutxi du eta ikusten duenean kristal baten atzetik bakarrik ikusten du. Zorionez, Geneban, Bernan eta Zurich osatu dira Nekaneretik elkartasun batzordeak.

Zergatik da Aritzak egindako lana garrantzitsua?

Tortura pairatu duen pertsona batentzat garrantzitsua da kontakizuna bera eta baita errekonozimendua. Iritsi behar gara momentu batera, non egin diren gehiegikeria guzti horiek, egia lortzeko batzorde baten esku egon behar diren. Ez dadila iniziatiba txikietan geratu, horrelako ekimenak instituzionalizatu nahi ditugu.



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Talde argazkia atera zuten lan honetan parte hartu dutenak. ATARIA

Unipapelen greba utzi eta negoziatzaren jarraitzen dute

Astelehenean izango dute hurrengo bilera enpresa jabeekin Burgosen eta zabaldu den negoziazio aukera bat izango dute hizpide. Ekainaren 24an amaitzen da kontsulta epea.

Jon Miranda Aduna

Unipapel enpresako langileek greba bertan behera uztea erabaki zuten atzo egindako batzarrean. «Gatazkari amaiera eman bitartean guk lanean jarraitu nahi dugu, gizarte segurantzaren kotizatu eta gurekiko zorra egin dezala enpresak», dio langileen ordezkari, Pello De la Cruzek. «Azken asteotan egin dugun grebak bere emaitzak eman ditu eta oihartzuna lortu dugu jendartean, baina negoziazio epea bukatzeko geratzen diren egun hauek, lanera agertuko gara, nahiz eta zer eginik ez eduki».

Asteartean egin zuten Burgosen kontsulta epearen barruko laugarren bilera eta negoziazio bide bat zabaldu dela aitortu dute langile ordezkariak. «Bi lan sari kobratu, kaleratzeak bertan behera utzi eta langile guztiak aldi baterako –sei hilabete– erregulazio espedientean sartzea da orain mahai gainean dagoen proposamena». Aduna eta Logroñoeko plantako langileak bide hori jorratzearen aldekoak dira eta Madrilgoak, aldiz, negoziazio horretan sartu edo ez erabakiko dute egunotan. Dena dela, hurrengo astelehenean, ekainak 20, Burgosen izango dute hurrengo hitzordua.

Egun gutxi dituzte negoziaketa-



Aurreko ostiralean Tolosan Unipapeleko langileek egin zuten mobilizazioa. M.U.

tarako Unipapeleko langileek. Kontsulta epea ekainaren 24an bukatzen da. «Ez dakit akordioa lortuko dugun edo ez», dio De la Cruzek, «baina proposamen honekin sei hilabeteko arnasa izango genuke. Langabezi saria jaso eta inork alde egiteko erabakia hartuko balu, kalte ordaina jasotzeko bermea izango luke».

Hasiera batean, proposamenari aurre egiteko nahikoa diru ez dutela jakinarazi zuten enpresa buruek astearteko bileran, «baina Adunako biltegian nahikoa material badago guri bi soldata ordaintzeko. Ziurtatu nahi dugu diru hori langileon sariak ordaintzeko erabiliko dela eta ez beste ezertarako».

BESTE BIDEEN BILA

Springwater inbertsio funtsa da gaur egun Unipapeleko hiru lantegien jabea eta «haiekin lotura guztiak hautsi» eta bere bideari ekin nahi diote Adunako langileek. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremana abiatu dute eta bideragarritasun plan bat osatu ondoren, inbertsore eta erosle berrien bila abiatu nahi dute. «Erakundeek orain arte errentagarria izan den enpresa bat ezin dute horrela alperrik galtzen utzi».

Egungo jabeekin adostasunera iritsiko balira, Adunako langileek urte amaiera arteko epea izango lukete orain arteko jardunari alternatiba bat bilatzeko.

Goi mailako pilotariak ariko dira Alegian

Erredakzioa Alegia

Bihar emango zaio hasiera VI. Alegiako Festetako Pilota Txapelketari. Beti bezala, Intxurre Pilota Elkartek antolatu du, Alegiako Udalak babestuta, eta jubenil eta nagusi mailako pilotari onenetako batzuk hartuko dute parte.

2011an antolatu zen lehen aldiz txapelketa. Bi mailatan jokatzen da eta bakoitzean antolatzaileek gonbidatutako lau bikotek jokatzen dute. Intxurre Pilota Elkarteko pilotariak beti izaten dira tartean. Eskualdean goi-mailako pilotariak egonik bertakoak izaten dira gehienak, eta hala da aurten ere.

Txapelketa laburra izaten da, finalerdiak eta finala. Aurten, jubenil eta nagusi mailako txapelketa antolatzea erabaki dute antolatzaileek. Jubeniletan Altuna-Aranguren (Alegia-Usurbil); Alberdi-Irazustabarrena (Azpeitia-Alegia); Elola-Murua (Bidania-Altzo); eta Artola-Gaskue (Amezketeta-Iruñea) ariko dira. Azken bi bikoteak izango dira bihar elkarren aurka jokatuko dutenak. Nagusietan: Arrieta-Gorrotxategi (Hernani); Eneko Labaka-Telletxea (Albiztur); Peru Labaka-Erasun (Zizurkil);

eta Urbieta-Urretabizkaia (Asteasu-Ikaztegieta). Urretabizkaia atzelari lanetan ariko dela da berrikuntza. Zerrendan aipatutako lehen bi bikoteak ariko dira elkarren aurka biharko norgehiagokan.

Alegiako Elorri frontoian jokatuko dira partidak. Biharko finalerdian, 22:00etan hasiko dena, esan bezala jubeniletan Elola-Murua eta Artola-Gaskuek jokatuko dute; ondoren, nagusietan, Arrieta-Gorrotxategi ariko dira Labaka-Telletxearen aurka. Azken hauek iazko irabazleak dira. Halere, ez dago faborito garbirik bi partidetan.

Hurrengo finalerdia uztailaren 1ean izango da, hori ere 22:00etan, eta beste lau bikoteak ariko dira lehian. Finalerdietan sarrera doan izango da.

Finalak uztailaren 16an jokatuko dira, 18:00etan, Alegiako festen barruan. Egun horretan profesionalen arteko partida handi bat ere programatuko da; tartean herriko semea, Iñaki Artola, ariko da. Sarrera jarriko da finalen egunean, profesionalen partida tartean izanik. Artolak, bere atzean Beroiz duela, aurre egin beharko dio Aimar Olaizolari, honek Imazen laguntza izanik atzeko kuadroetan.



INDUSTRIA HIZPIDE

Espainiako Kongresurako hauteskundeetarako EH Bilduko hautagaiak Adunan elkartu dira lan-gatazketan dauden zenbait enpresetako langileen ordezkariekin, tartean Adunako Unipapel enpresakoekin. Marian Beitialarrangoitiak azaldu duenez, «industriaren aldeko eta etorkizunerako apustu sendorik ez dago ez Madrilen eta ez Gasteizen. Egoera hori irauli egin behar da eta beste politika batzuk egin». I.G.L.

Pirinioetara irteera Alegiako Mendi Asanbladarekin

I. Garcia Landa Alegia

Aurtengo irteera berezietakoa antolatu du Alegiako Mendi Asanbladak, Pirinioetara joango baitira uztailaren 2 eta 3ko asteburuan. Autobusez joango dira bertara eta uztailaren 2an 09:00etan elkartuko dira Tontokalen, bidaiari ekiteko.

Zurizako aterpean egingo dute lo mendizaleek. Bi prezio jarri dituzte irteerarako: helduek 41 euro ordainduko dituzte eta haurrek 28 euro. Prezioan sartuta daude autobusa, aterpean lo egitea, afaria eta gosaria. Itzulera uztailaren 3an, igandea, arratsaldean egingo da. Egingo duten ibilbidea Linza-Gamueta izango

da, 7,5 kilometrotakoa. Plaza kopurua mugatua dela azaldu dute Alegiako Mendi Asanbladatik, eta izena emateko epea bihar bertan bukatzen dela, ekainaren 17a. Horretarako Alegiako eskolaren atarian dagoen orria erabili daiteke edo alegiakomendiasanblada@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

Sega garaia iritsi da

Gipuzkoako txapelketak jokatu dira ondorengo asteburuetan; Zizurkilen eta Asteasun finalak jokatu dira, ekainaren 26an eta uztailaren 10ean

Joxe Anjel Sarasola

Sega garai bete-betean sartu gara. Igandean, 11:30ean, Gipuzkoako Sega Txapelketaren kanporaketa jokatu da Aizarnan, Zestoan. Bi taldetan ariko dira segalariak. 30 minutuko lana egin beharko dute, eta gero kilo gehien biltzen dutenek egingo dute aurrera, multzo bakoitzeko lehen biek.

Lehen taldean Iban Pardo zestoarra, Julen Gabirondo urnietarra eta iazko Euskal Herriko txapelduna, Andoni Urrutia oñatiarra eta Arkaitz Arteaga baliarraindarrak ariko dira. Sega



Sega denboraldi berri bat martxan jarriko da igandean; guztiak ez egon arren, daudenek maila polita jarriko dute. ATARIA

utzirik egon ondoren, berriro itzuli da belazera Arteaga. Euskal Herrikoa irabazia dago baliarraindarrak, eta ikusi beharko da zein mailatan itzultzen den. Segalari oso fina.

Bigarren multzoko lau segalariak 12:30ean hasiko dira lanean. Igor Esnaola legorretarra eta herri kirol munduan oso ezaguna den txapelduna bertan egongo da. Berarekin, Iñigo Mercader eta Suhari Irazustabarrena urnietarrak eta Jokin Etxeberria amasarra ariko dira. Azken honen ez du ezezaguna mundu hau, duela lau urte ere parte hartu baitzuen.

Finala uztailaren 10ean jokatu da Asteasun. Faboritoen artean, Julen Gabirondo eta Igor Esnaola aipatu nituzke, na-

«Sega mundura gozatzera itzuli naiz; eta arantza ateratzera»

Josu Ozaita Baliarrain

Aspaldiko segalaria da Arkaitz Arteaga (Baliarrain, 1984), nahiz eta oraindik 31 urte dituen. Ia segak erdoilak hartzen zeudela, 5 urteko geldialdiaren ostean, ekingo dio berriz txapelketa munduari. Igande honetan izango da lehena, Gipuzkoako Sega Txapelketan Aizarnan, eta parte hartuko duten zortzi lagunetatik, lau pasako dira uztailaren 10ean burutuko den final handira. Sega pikatzen ari dela harripatu, eta tertulian aritu gara segaz eta txapelketaz.

Segaren arrazirikatzeko izan al duzu?

Bai, iaz hasi zitzaidan zirikatzen. Azpeitian Europako Nazioarteko Sega Txapelketarako entrenatzen aritu nintzen, gustua hartu eta entrenatzen segi dut. Azkenean, Gipuzkoako txapelketan izena ematen amaitu dut.

2008an eman zenuen ezustekoa Euskal Herriko txapela jantziatz.

Bai, inork ez zuen espero, ezta nik ere. Batzuetan horrela gertatzen dira gauzak, eta horrelako sorpresentzat beti atea irekita dut nik. Oso momentu onean

ARKAITZ ARTEAGA SEGALARIA

2008. urtean jantzi zuen Euskal Herriko Sega Txapelketako txapela baliarraindarrak; urte zailak pasa ostean, berriz itzuliko da sega hartu, eta belardietako lehiara.

orain erretiratuta zezuma dago eta. Usurbilen ere bada beste erretiratu bat, Joxe Antonio, zorroztan eta asko laguntzen didana.

Zorroztan?

Bai, segan zorrozketak eta pikatzea oso garrantzitsuak dira, ia artisau lanak. Ni orain ari naiz ikasten, eta badu berea. Oso gazte gutxi jakingo dute lan hau...

Eta hamarreko taldea nongo kideekin egin duzu?

Ingurukoak izatea gustatzen zait, gertukoak. Baliarraingo herrietarrak eta Ikaztegiako kudarillakoak...

Azken emaitzan eragiten al du taldeak?

Ez luke behar. Belarra biltzeko ez da arazorik izaten orain, ondo moztera behartuta zaude eta. Lehen, lan gehiago izaten zen belar

biltzen, ez zegoen txukun mozteko obligaziorik.

Nolatan hasi zinen segaren munduan?

Baliarraingo jaietan herrikoen artean herri kirolak egiten genituen festa jartzeko, eta hartarako hasi nintzen segan ikasten. Handik, taldekako lehiaketa bat irabazi genuen Baliarraingoek Tolosan, eta gustua hartu eta jarraitu genion. Baina hori aspaldi, 2005 urteaz ari naiz.

Zer behar du segalari onak?

Gauza asko! Batetik, fisikoa, iraupena ziurtatzeko. Teknika, ezinbestekoa. Eta azkenik, indarra belar zakarra mozteko. Orduan, hauspoa, teknika eta indarra.

Baserriko lana, jada kirol hutsa bilakatu da.

Bai, aitona batzuk kenduta, ez da inor segan ibiltzen. Herri kirol

guztiei gertatu zaie hori, eguneroko lana izatetik kirol izatera igaro dira.

Poliki-poliki baina irauten ari dira...

Bai, eta segak beti iraungo duela iruditzen zait. Polita da sega, teknika menperatzera iristen bazara.

Bai baina, korrika egiteko zapatila batzuk soilik behar dira, segan aritzeko beste faktore batzuk sartzen dira...

Zaila da kirol hau edozein hasteko. Demagun, Tolosako gazte batetik honetan hasi nahi duela, eta nola? Nondik? Zeinengana joan behar du? Honetarako harreman sarea behar duzu: entrenatzeko, lur-sailak bilatzeko, sega pikatzeko, biltzeko... Baina bideak jarri beharko lirarteke kirol hauek irautea nahi badugu. Hemen, Gazteluko Joxe Gabirondok egindako lana miresten dut. Gazteentzako aukera ireki zuen iaz: erremintak utzi, belardiak bilatu eta entrenatuz. Baina izugarriko lanak dira horiek...

Nolatan hasi zinen segan eta ez beste kirol baten?

Aizkoran aritzeko txiki xamarra naiz. Herri kirolean hau probatu, eta gustua hartu nion. Tira!



GIPUZKOAKO SEGA TXAPELKETA, FINALERDIAK

Ekainak 19, Aizaman (Zestoa)

Lehenengo kanporaketa: 11:30

- Iban Pardo Andres
- Arkaitz Arteaga Bereziartua (Baliarrain)
- Julen Gabirondo Izeta
- Andoni Urrutia Idigoras
- Bigarren kanporaketa: 12:30**
- Igor Esnaola Dorronsoro
- Jokin Etxeberria Peñagarikano (Amasa)
- Iñigo Mercader Soroa
- Suharri Irazustabarrena Arbelaiz



Alatzne Etxaburua zizurkildarra etxean ariko da ekainaren 26an. ATARIA

barmen. Gero, ikusi egin behar-ko da Arteaga nola itzuli den eta beste segalarien sasoi puntua. Maila oso polita egongo da Aizarnan, eta txapelketa osoan. Sega kirol oso berezia da. Meritu handikoa, eta Gipuzkoako Txapelketara, lan luzera, zortzi segalari aurkezteak harritu egin nau. Gainera, beste bi segalari bi-

dean gelditu direla jakin badakit, prestatzen hasi eta forman ez di-relako ikusi izena eman ez dute-nak. Guztiz ikusgarria den kirola da sega, oso polita, eta Asteasun, adibidez, oso maitea. Euskal Herriko Txapelketak ikusiak gara bertan, baita asteasuarrak tarte-an zirela ere. Bizi egiten dugu sega.

AZKARTASUNEKOA
Ekainaren 26an, igandez, Gipuzkoako Azkartasuneko Sega Txapelketa jokatu-ko da Zizurkilen. Aurrez esandako guztiekin bate-ra, segalari zerrenda luzea elkar-tuko dira 18:00etan lanean has-teko. Eskualdekoak ere bertan izango dira. Gizonezkoek 100 metro karratuko saila moztu be-

GIPUZKOAKO AZKARTASUNeko SEGA TXAPELKETAN

Ekainak 26, 18:00etan Zizurkilen

Gizonezkoak

- Arkaitz Arteaga Bereziartua (Baliarrain)
- Peio Argia Eizmendi (Zizurkil)
- Igor Esnaola Dorronsoro
- Jokin Etxeberria Peñagarikano (Amasa)
- Julen Gabirondo Izeta
- Mikel Garaialde Orbegozo
- Jokin Garmendia Etxeberria (Baliarrain)

- Joakin Garmendia Garmendia (Anoeta)
- Suharri Irazustabarrena Arbelaiz
- Arkaitz Lizarralde Padilla
- Iñigo Mercader Soroa
- Jon Otaegi
- Iban Pardo Andres
- Andoni Urrutia Idigoras

Emakumezkoak

- Irati Astondoa Zuluaga
- Alatzne Etxaburua Otaegi (Zizurkil)
- Ainara Otamendi Elizalde (Ibarra)

harko dute. Emakumeen ka-suan, 50 m2-koa. Hauek Gipuzkoako Sega Txapelketarik ez dute jokatu-ko, gizonen kasuan bezala. Ez eta ondoren etorri-ko den Euskal Herriko ere. Azkar-tasuneko bai, hiru segalari el-kartzea lortu baitute, aurrez ai-patu beste bi txapelketetan ez bezala. Alatzne Etxaburua beti

bezala lanerako prest joango da Zizurkiler. Berarekin batera, Ai-nara Otamendi ibartarra. Irati Astondoa bizkaitarra iza-nagatik, ekainaren 26an lanean ibiliko da, multzoa osatzen la-guntzen. Euskal Herrikoan, lan luzeetan, ez da egongo, ordea. Zeanuritarra buru-belarri dabil aizkoran.



aurkitzen nintzen orduan, in-dartsu eta gogoz. Puntu onean nengoen, baina ez kasualitatez, asko saiata. **Nola oroitzen duzu final hura?** Sailetan ez nindoan lehena, An- doni Goikoetxea zebilen aurretik. Ni ere, nahiko ondo nindoan, belarra ondo eta txukun moztuz. Bukatuta gero ere, ez nuen espe- ro irabazterik, baina kiloen ba- lantzak nire aldera jo zuen. Hu- rrengo urteetan etorri ziren ko- meriak... **Zerpasa zen gero ba?** Gauzak ez zitzaizkidan nahi be- zala atera, eta eskas ibili nintzen. Anemia sortu, eta segan ez goza- tzer. Igarota, nazkatuta amaitu nuen. **Orduan, arra zirika bai, baina arantza ateratzeko ere bada itzulera hau.** Bai, hori. Sega, lana izango balitz bezala sentitzera iritsi nintzen, entrenamenduak behartuta. La- nean 10 ordu egin, segan aritzera gero, jada ez ninduen asebe- tzen, eta orain, horri buelta eman nahi diot: sega mundura gozatzer. itzuli naiz. **Nongoak izango dituzu kon- trario?** Orain badabiltza gazteak Urnie- ta, Hernani eta Astigarraga ingu- ruetan. Azken herri honetako da iazko txapelduna, Gabirondo. Hala ere, Legorretako Esnaola ikusten dut nik faborito. Bere

eguna badu, txapela gertu izan- go du. **Orduan 23 urte, gaur 31. Or- duan arduraz libre, gaur bi ume. Entrenatzeko eta, nola zabilta?** Lehen baino hobeto! Orain bi ume ditut, baino bestelako lana ere bai. Garai haietan obran ari- tzen nintzen, 10 orduko lan saio- an. Gaur fabrika nabil, bi errele- boetara, eta horrek haurrekin egon eta entrenatzeko aukera ere eskaintzen dit. **«Apustu bat gustura egingo nuke, bizi honetan behin behintzat»** **«Legorretako Esnaola ikusten dut nik faborito. Bere eguna badu, txapela gertu izango du»** **«Hauspoa, teknika eta indarra behar ditu segalari onak»** **«Joxe Gabirondo gazteluarraren lana miresten dut: lan asko egin du sega bultzatzeko»** **Nolakoak dira entrenamen- duak?** Astean bitan soilik aritzen naiz segan. Gero, korrika eta bizikle-

tan ibili, eta gustukoa dut astean behin kiroldegian luzaketak egi- tea. Luzatu batzuk eman gorpu- tzari eta... **Orain izango da belazea entre- natzen aritzeko...** Bai, belardi nahikoa daude, bai- no hor ere badago kontua. Orain baserri txiki gutxi dago, eta han- diak aritzen dira batik bat, granja modukoak. Eguraldi onarekin, di-da egiten dituzte belazeetako lanak traktore handiekin. Or- duan, ez pentsa, belazeak bila- tzeko lanik ez dagoenik. Orain gainera, jendeak terrenoak gu- txiago zaindu eta sator-zuloak eta izaten dira. Pixa zabaltzean ere, belarra bakandu eta belar zakar eta handiagoa dago. Baina Asteasu, Orendain eta Amezke- tan uzten dizkirate mozteko sail politak. **Zu animatzea erraza izango da, baina ondoren, futbole- an bezala, beste 10 lagun bilatu behar. Ez da lan gozoa izango hori ere...** Hamarreko taldea egitea erraza da, txapelketa egunetan lagun- tzen ibiltzeko. Zailena, egunero- kotasunerako entrenamendu- tan laguntzea da. Lehiaketa hiru edo lau egun dira urtean, entre- namenduak auskalo. Hala ere, ezin kexatu, badut inguruan jen- dea: Ianire emaztearen babes- a beharrezkoa dut, eta segan, Ba- liarraingo Garmendia, Ikaztegie- tako Iraola... eta baita aita ere,

nik ere probatu ditut pilota, fut- bola eta halakoak, baina han ez genuen balio. Orain bizikletan ere ibiltzen naiz: duela bi urte Quebrantahuesos proba egin be- har nuela, txirrindua erosi eta egurra. Hori ere polita bai, baina gogorra. **Olasagastik dio, herri kirolak bizirik badaude, apustuari es- ker izan dela. Eta, egia esan, txapelketak baino arreta gehiago pizten dute halakoek. Segan aspaldi ez da apusturik jokatu...** Bai, azkenekoa iaz izan zen As- tondoa eta Etxaburuaren artean: aizkora eta sega. Eta aurrekoa egin zela, jada urte batzuk igaro dira: Urki eta Alkortak jokatu zu- tena, korrika eta segan. Gutxitu- ta dago erabat apustu kontua... **Inork apustua zuri botata, eu- tsiko al zenioke?** Nik, nire bizitzan apustu bat gu- txienez gustura egingo nuke. Apustua egin eta jendea mugit- zeko, erakargarritasuna izan be- har du, morboa. Apustuak fina eta zentzu komunekoa izan be- harko luke.

MOTZEAN

- Tolosaldeko paisaia:** Txindoki.
- Tolosaldeko jaia:** Baliarraingo festak.
- Musika taldea:** Hesian.
- Pelikula:** El zorro.
- Pertsonaia bat:** Tyson.

Orain arte ospatu gabeko Gazte Festen atarian daude ibartarrak

‘Ezer ez da berdin’ kanpainarekin jarraituz, Gazte Festetako egunetan ere auzolana bultzatu nahi dute eta lanerako dei egin dute

Maier Ugartemendia Ibarra

Ibarrako Gazte Festak ospatuko dituzte asteburuan. Bertako eta inguruko gazteentzat hitzordu garrantzitsua izaten da, eta aurtengo egitaraua potoloa prestatu dute eskaera horri erantzuteko.

Izan ere, aurtengo Gazte Festak ez dira berdinak izango, edo hori da behintzat antolatzaileek bilatzen dutena. Horregatik, duela hilabete batzuk *Ezer ez da berdin* kanpaina abiatu zuten, herriko gazte guztien parte hartzea bilatzen zuena. Eta hain zuzen ere, kanpainak «arrakasta» izan zuen; 60 gaztetik gora bildu baitziren asanblada ezberdinetan, eta ordutik lan talde ezberdinetan egin dute lan aurtengo Gazte Festak prestatzeko.

AUZOLANERAKO DEIA

Hain zuzen ere, gazte guztien parte hartzea bultzatze aldera, auzolanerako deia egin dute antolatzaileek festa hauetan.

Horregatik, gaur, 16:02an muntaia egiteko hitzordua jarri dute. Garbiketa ere auzolanean egingo dute: ekainaren 18an 15:29an, ekainaren 19an 16:33an eta ekainaren 21ean 17:00etan.



Gazte Festak antolatzeko lanetan aritu dira asanblada ezberdinetan, eta gazteen parte hartzea handia izan da. ATARIA

BRIGADA FEMINISTA EMAKUMEEI LAGUNTZEKO

Ibarrako Emakume Taldeak brigada feminista antolatu du Gazte Festetako ostiral gauerako emakumeei etxera laguntzeko. Taldeak azaldu duenez «ez dugu eraso sexistarik onartuko». Horregatik, aipatu

bezala, bihar, ostirala, 01:30etik 05:30era «etxera bakarrik joateak beldurra ematen dietenei laguntzeko» brigada antolatu dute. Beraz, etxera brigada horren laguntzarekin joan nahi dutenentzat telefono zenbaki bat jarri dute: 632 445 333.

Taldetik jakinarazi dutenez, Ibarrako edozein tokitara edota Tolosara (Amarotz eta Larramendi ere bai) lagunduko dituzte telefono

zenbaki horretara deitzen duten emakumeak.

Bestalde, Gazte Festetan eraso sexistarik egongo balitz, eraso jasaten duen pertsona horrek eraso salatzeke dei egin dute, eta horretarako ere telefono zenbaki bat jarri dute: 660 461804. Bi telefono zenbakiak dituzten karte-lak plazan egongo dira. Zerbitzu hori Gazte Festetako edozein egunetan egongo da erabilgarri.

EGITARAUA

Bihar, ekainak 17

18:01. Txupinazoa.
18:14. Jolas herrikoiak.
19:16. Sagardo dastaketa.
20:59. Gazte afaria plazan. Txartelak aurrez salgai ohiko lekuetan.
23:02. Kontzertuak plazan: Humus, Kao Etiliko eta Guri 5. Kontzertuen artean ekitaldia egingo dute.
02:03. Dj Bull gaztetxean.

Ekainak 18, larunbata

10:31. Gazteentzako jolasak.
16:29. Alurr dantza taldearen ikuskizuna.
Ondoren. Patata tortilla eta txokolate jatea.
19:31. Elektrotxufila elektrotxaranga herrian zehar.
21:02. Barrikotea gaztetxean, Txakurjana musika taldearekin.
22:33. Su ekitaldia Atarrabiako eskutik.
22:59. Kontzertuak plazan: Kezka, Gabezia eta Zesuma.
02:01. Dj Jotatxo gaztetxean.

Ekainak 19, igandea

10:29. Gazteenen tartea.
18:02. Bertso musikatuak: Alaia Martin, Oihana Iguaran, Beñat Gaztelumendi, Xamoa, eta Amaia Agirre gai jartzaillea.
Ondoren. Talo jatea.
22:31. Kontzertua gaztetxean: Oztopo.

Elkartzeko aitzakian festa eguna izango dute Elduainen

M. Ugartemendia Elduain

Jai egun berezia ospatuko dute igande honetan Elduainen. Duela bost edo sei urte inguru hasi ziren festa egun hau ospatzen, eta ekaineko hirugarren astean finkatua dute data, urtero guztiek kontuan hartuta izateko.

Urteroko hitzordua da honakoa eta «Eguberrietan kantari, etxez etxe, ateratzen zen diruarekin ume eta gazteentzat zer bait egin behar genuela pentsatuz» sortu zen, Izaskun Kerexeta antolatzaileetako baten esane-

tan. Ume, gazte eta gurasoak «giro politean» elkartzea du helburu festa honek, eta urtero lortzen dute.

Igandean, 09:30ean, jarri dute hitzordua plazan. Txikienekin gurasoekin Elduainen bertan egingo dute ibilbide bat «bazterrak ikusi eta gauzak erakusteko». Handiagoak direnek, berriz, beste guraso batzuekin ibilaldi luzeago bat egingo dute, oraindik zehazteko badute ere Berastegi edo Urdelar aldera.

Guztiak bazkaltzeko frontoian elkartuko dira 14:00ak inguru-

ruan. Bazkalondorenean, jolasen txanda izango da. Altxorren bila urtero jolasten dira, eta gainera, arrakasta izaten omen duen jolasa izaten da, eta «herriko lekuak eta jendea» ezagutzeko aprobetxatzen duten pisten bidez. Ondoren, herri jolasak izaten dituzte plazan: lokotxak, zaku lasterketak, zapi jokoa, txingak...

Guztira 60-70 pertsona inguru elkartzea espero dute igandean, eta eguraldia lagun badute «sekulako» eguna pasatzeko prest daude.

UEMAAn sartzearen aurkako salaketa bertan behera

M. Ugartemendia Berastegi

2014ko martxoaren 31n osoko bilkuran Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko erabakia hartu zuen udalak. Irailaren 1ean helegitea jarri zion Carlos Urkijok hartutako erabakiari.

Uemak jakinarazi duenez, ordea, salaketa horiek erretiratu egin ditu orain Espainiako Gobernu Ordezkaritzak. Nahiz eta, Amaia Azkueren, Berastegiko alkatearen arabera, eurek oraindik

ez duten jakinarazpen ofizialik jaso eta «zain» dauden.

Uemak jakinarazi duenez, salaketa guztiak EAEko Udal Legea onartu aurrekoak ziren: «Udal Legeak, ordea, hizkuntza politika garatzeko eskumena ematen die udalei, eta Ueman sartzeko aukera legez babesten du». Zerain, Ea eta Dimaren aurka ere jarri zituen helegiteak Gobernu Ordezkaritzak arrazoi berdinarengatik, eta eurek jada jaso dute epaitegietako jakinarazpena.


Bosgarren kanpaina abian, Sanpedroburuko aztarnategian

Hilerriaren parte handiena industea da aurtengo helburua; lanen aurrekontua osatzeko 'crowdfunding' kanpaina jarri dute abian Verkami plataforman

Imanol Garcia Landa
Bidania-Goiatz

Bosgarren denboraldia hasi du aste honetan Iromendiko Sanpedroburu muinoan egiten ari diren indusketak. Iosu Etxezarraga indusketen koordinatzaileak azaldu duenez, aurtengo asmoa «hilerriaren parte handiena industea da. Aurreko urteetan induskatu ditugu zenbait hilobi, baina aurten uste dugu zabalduko dugun eremuan hilobi dezentetopatu ditugula. Hilerriaren gune garrantzitsuan egongo gara aurten». Hilerrian garai ezberdinetako hilobiak topatzea espero dute, eta jasotako informazioarekin «jakin ahal izango dugu zenbat giza gorpuzki dauden, zenbat hilobi dauden, eta, bestekak beste, estatistika aldetik informazio garrantzitsua izango da». Aurrera begira DNA analisiak egin daitezkeela esan du Etxezarragak, «beraien artean familia harremanak ote zeuden jakiteko. Hemen bizi zen komunitate horren informazio gehiago emango digu».

2011n hasi ziren Sanpedroburuko muinoan indusketak egiten. Baseliza zahar baten bila zebiltzan, eta bazekiten Iromendiko San Pedro baseliza Sanpedroburu muinoaren inguru horietan egon zela. Inguruko baserrietan galdetu ondoren, kokatu zuten baseliza non egon zen gutxi gorabehera, eta lehenengo lagin arkeologikoa egiterakoan bete-betean asmatu zuten.



Sanpedroburuko muinoan iaz egindako indusketa lanen irudiak. ATARIA

«Gure asmoa baseliza industea zen ea bere garaian, Erdi Aroaren hasieran-edo, parrokia bat izan zen jakiteko. Hau da, inguruan jendea bizi ote zen, eta jende hori bertan bataiatu eta ehorzten zen. Herrixka baten erdigunea ote zen jakin nahi genuen», azaldu du Etxezarragak.

Lehenengo lagin hartan hilobi bat aurkitu zuten, IX. mendekoa. Hurrengo kanpainetan hainbat elizen aztarnak topatu dituzte, bata bestearen gainean eraiki zirenak. Lehenengoaren aztarnak VIII. mendekoak izan daitezkeela deritzote. Azkenekoa XIX. mendean bota zuten. «Eliza horien inguruan hilerri bat dagoela badakigu, eta geruza ezberdinetan, antzinakoetatik hasita berrienetaraino, giza hondarrak daude: ontziak, tresnak... Garai

hartan bizi zirenen aztarnak», esan du Etxezarragak. «Hori da jakin nahi duguna: jendea nola bizi zen bertan, eta nola aldatu zen bere bizitza mendeak pasa ahala».

AZTARNATEGI BEREZIA

Astelehenean bertan hasi ziren indusketaren lan nagusiarekin. Aurretik Bidania-Goiatzko herri-tar batzuek lagundu diete aztarnategia dagoen lekua sasiz-eta garbitzen, «eta hori benetan eskertu behar diegu beraiei», esan du Etxezarragak. Asmoa da hila-bete inguru aritzea indusketa lanetan.

Sanpedroburu muinoko aztarnategia berezia dela dio Etxezarragak: «Batetik, ez dago eraikunik egun bertan. Pinudi bat dago inguruan, eta horren erdian da-

goen soilgune batean dago aztarnategia. Horrek guztiak errazten du bertan lan egiteak. Lurraren jabeak animaliak izaten ditu bertan, baina ez du lurrazpiko egiturak hondatuko dituen eraikuntzarik».

Beste berezitasuna antzinatasuna da: «Topatzen ari garen hilobi zaharrenak VIII. mendekoak dira, eta horrelako oso gutxi topatu dira Gipuzkoan. Hilerriak hiru maila ezberdin ditu, azkenekoa XII-XIII. mendekoa. Egia esan landa eremuko kokaleku bat izateko ikusten dugu ezaugarri interesgarriak dituela aztarnategiak, hilobi maila ezberdinak dituelako, eta gutxienez lau elizen aztarnak dituelako. Eta hori ez da batere ohikoa». Etxezarragak, topatutako egiturez gain, garrantzi berezia ematen

dio bertan bizi ziren jendearen eguneroko bizitzako hondakinak topatu izana: «Animalia hezurak eta beraiek jaten zituzten janariaren aztarnak, ontzi eta lapiko, eta horrelakoen zatiak, eta noizbehinka tresna batzuk ere topatu ditugu, laiotz baten pus-keta, adibidez. Esan daiteke elizaren aztarnak garrantzitsuak izan arren, garrantzitsuena egitura horiekin batera bertan bizi zen jendearen eguneroko bizitzaren aztarnak topatu izana da. Aipatzen ari garen garaiko, X-XII. mendeak, tresnak-eta oso gutxi topatzen dira Gipuzkoako aztarnategietan. Beraz, esan dezakegu aztarnategi hau oso aberatsa dela alde horretatik».

Kanpainaren aurrekontua osatzeko aurten ere *crowdfunding* kanpaina jarri dute martxan. Urtero jasotzen ari dira aldundiaren partetik diru lagunta bat eta horrek aurrekontuaren parte baterako balio die. *Crowdfunding* kanpainaren bitartez garraioaren eta dieten kostua osatu nahi dute. 1.500 euro lortu nahi dituzte eta Verkami plataforman dute martxan kanpaina (www.verkami.com). Uztailaren 1ean bukatzen da ekarpenak egiteko aukera.

Horrelako kanpainetan izan ohi den moduan, hainbat ekarpen mota egin daitezke. Xumee-na 10 euroko da, eta ekarpena egiten duenak aurtengo indusketari buruzko txostena jasoko luke. 20 euro ekarpenarekin, txostenaz gain, bisita gidatua izango luke. 50 euroarekin, aurrekoek gain, kamiseta bat. 100 euroko ekarpena egiterakoan bi aukera daude. Horietako bat elkar-teei begirakoa da, eta bertako bazkideentzako bisita gidatua antolatuko lukete. Bestea norbanakoei zuzenduta dago, eta ekarpen horrekin aukera izango luke indusketa lanetan parte hartze-ko, eta agian aurkikuntza batean parte hartze-ko.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Maria Dolores Bengoetxea Karrera

(Jose Antonioren alarguna)

-Goian bego-

*Moñoa buruan, mantala soinean
eta lana eskuetan.*

*Zure indar eta izatearekin
Erremendaingo txoko guztiak
eta gu bete gaituzu.*

*Atariko harrian eserita
ikusiko zaitugu amona.
Agur eta ohore!*



Zure bilobak: Haritz, Oihana eta Iñaki, Uxue eta Iker, Oier eta Amaia, Nahike, Amets; birlobak: Haizea, Ekhi, Ur, Sua, Harri, Ane, Elene.

AMEZKETA, 2016ko ekainaren 16a



OSTEGUNA, 2016KO EKAINAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.info
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info
Bezera arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.info

ATARIA IRRATIA
107.6 FM / 105.0 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Golaiz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Samaniego ikastetxeko hiru ikasgela pasa dira 'Ataria'-tik. N.R.A.

‘Tolosaldeko Ataria’-ko erredakzioak maiatza eta ekainean biharko komunikatzaileen bisita izan du: Samaniego ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 5. mailako neska-mutilak.

Komunikatzea helburu

Erredakzioa Tolosa

Ikasturte amaiera ukitzen eta usaintzen ari dira ikasleak. Oporretara joan aurretik berriz komunikazioaz hausnartzeko eta kazetaritza lana bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute Tolosako Samaniego ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek.

Muinean, bisita hauen helburua bertakoa eta gertukoa den komunikabidea ikasle hauek ere gertu sentitzea da, kazetaritza lana zer eta nola egiten den ezagutuz. Komunikazioa erabat oinarritzakoa izanik, lanbide ere badela. Ikasleei gainera ikastetxean bertan landutakoa ere praktikan jartzeko aukera txikia eskaintzen zaie, ATARIA irratiko *Pasahitza* magazinean zuzenean parte hartuz.

IKASTURTE BERRIRANTZ

Honela, **TOLOSALDEKO ATARIA**-k abian jarritako Ikasiz erakutsi 2015-16 egitasmoari amaiera eman zaio Samaniegoren partaidetzarekin. Hala ere, ikasturte berria asmo eta sukaldean dau den ideia berriekin ere etorriko da. **ATARIA**-k, geroako komunikatzaileekin hasitako bideari eutsi eta elkarlan horretan sakontzea helburu baitu.



Zuzenean aritzeko aukera izan dute 'Ataria' irratiko 'Pasahitza' saioan. N.R.A.

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. Auzolanerako deia, gazte asanbladak. Gazte Festak direla eta, Ibarako Gazte Asanbladak muntai lanetarako deia egin du. Gaztetxean, 16:00etan.

Tolosa. *Hitchcock/Truffaut*. Jatorriko bertsioan, zine foruma.

19:15ean eta 21:45ean, Leidorren.

Zizurkil. *Euskal Herriaren arpilatzea Kutxabank*, hitzaldia. Ahoztar Ze-laietaren liburuaren aurkezpena izango da. 19:30ean, Plazida Otaño liburutegian.

Leaburu-Txarama. Ohiko osoko bilkura. Honako gaiak jorratuko dira, besteak beste: aktak onartzea, dekretuen berri ematea, 2015. ekitaldiko likidazioaren berri ematea, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren alegazioei erantzutea eta behin behineko onarpena, mozioak eta galdera eta erreguak. 20:00etan, udaletxean.

Tolosa. *Eroen ontzia* erakusketa. Joan Baixas txotxongilolari eta artistaplastikoak, bere azken sorkuntzak erakusten ditu, liburuak elementu nagusi diren instalazioetatik hasi eta artista bartzelonarrak *Mangoneos* izenez izendatzen dituen pieza txikietaraino. Margolanak ere badira, nahiz eta bere pinturak ez diren askotan ikusgai izan. Topic zentroan.

Tolosa. *Ardoaren kolorea* erakusketa. Lurlan Bristot eta GKO Gallery-k elkarlanean aurkeztu dute erakusketa. Lurlan Bristoten.

Aduna. *Ibaialde* erakusketa. Udaletxeko pleno aretoan. Astelehenetik ostegunera 08:00etatik 17:00etara, eta ostiralean 08:00etatik 16:00etara.

Tolosa. *Beantatuz*. Urteetan zehar Tolosako grafiti erakusketa izan dena, 2010. urteaz geroztik *Beantatuz* izenpean egiten da. Nazioarteko kale arte jaialdia da.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, Gazteekin solasean, Olatz Artolaren *Kale Kantoitik*, Tolomendiren atala, Quark zientzia atala, errezeta eta lehiaketa, deitu 943 698038ra edo whatsapp me-

zu bidali 687410033ra 10:45etik 10:55era. Antton Telleriaren eskutik eguneko abestia saioa amaitzeko.

11:00-12:00. Hamaiketakoa.

Tolosako albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzitako onena.

21:00. Ataria iluna.

28 KANALA

12:30. Aretxabaleta ezagutzera nator.

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:00. Ikusi Irratia.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Lejeune, L. Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 673274.

Gauekoa. Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Aldaketa gutxi, eguraldi nahasia izango da. Egurdi aldera arte nahiko lasai eutsiko dio, tarteka busti deza-ke, tenperatura jaitsiko da, 20 gradura iristea kosta egingo zaio. Egurditik aurrera eta batez ere arratsaldean zaparradaren bat izango da, ekaitzetarako joera handia hartuz. Gaurerako giroa lasaituko da

Bihar. Eguraldi ezegonkorak jarraipena izango du. Orokorrean aurreko egunekin alderatuz ezegonkortasuna txikiagoa izango da baina ipar-mendebaldeko haizearekin hodei multzoak sartuko dira itsasotik eta zaparradak izango dira, ugarienak eguerdian eta arratsaldeko lehen orduan izango dira. Tenperaturari 20 gradura iristea kosta egingo zaio.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.